

# **EAEko 2020ko AURREKONTU PROIEKTUA**

**LAB sindikatuaren irakurketa**



# **EAEko 2020ko AURREKONTU PROIEKTUA**

## **Aurrekariak.**

Lakuako exekutiboak argi utzi du bigarren urtez jarraian aurrekontuak luzatzea “ez litzatekeela drama bat izango”. Hala da, EAJrentzat eta bere interesentzat ez da drama izango, Gobernuak dituen ordezkariak ere askotan adierazi dute hori.

Horrek erakusten du Urkullu eta bere lantaldea ez daudela prest zentimetro bakar bat ere mugitzeko aurrekontuen negoziazioan; nahiago dute duela bi urte onartutako aurrekontuak oinarri hartuta gobernatzen jarraitu, gehiengo sozialaren interesak politikaren erdigunean jartzea lekarkeen herri akordio bati aukera bat ematea baino.

Orain arte EAJko Lakuan onartu izan dituen aurrekontu paktu bakarrak sakontasunik gabeko akordioak izan dira. Akordio eskasak, gastuen aurrekontu osotik hutsaren hurrengo portzentajea ordezkatzeko duten partida gutxi batzuk mugitzea besterik ez dakartenak.

Jarrera zeken horrek erakusten du Gobernu autonomikoak eta hura sostengatzen duten alderdiek garrantzia handirik ez dietela ematen 2020rako landu dituzten kontuei.

Hala ere, zalantzarik gabe, aurrekontuan tresna erabakigarria dira gobernuak ezarritako helburu eta lehentasunei eta haien finantziarioari begira gastu politika batzuen eta besteen artean baliabideen esleipena plangintzatzerako orduan.

Horregatik, oinarri-oinarrizkoa da urteko kontuan diru-sarrera zein gastuen ikuspuntutik aztertzea, nahiz eta diru-sarreraren atala EAEko aurrekontuen eztabaidatik kanpo geratzen den, zergen arloan konpententziak Batzar Orokorrenak direlako.

## **Ekonomiaren moteltzea tarteko izanik ere, eta Elkarteen Gaineko Zerga jaitsi bada ere, zerga-bilketatik eratorritako diru-sarrerak igo egingo.**

Foru Aldundien ekarpenetatik datorren baliabide nagusia da. Zehazki, diru-sarreraren %89 ordezkatzeko du eta 10.473 milioi eurora iritsiko da, alegia, 2019ko ekitaldirako aurreikusitakoak baino 318 milioi gehiago.

Aldundien ekarpenak %3,1 igoko dira. Baina kontzertatutako zergen bilketarekiko menpekotasun zuzena dutenez, haien garapenean eragin ezkorra duten bi egoera

ematen dira: ekonomiaren eta enpleguaren moteltzea, eta hainbat zergetan emaniko aldaketak.

Kasu horietako bat da Elkarteen Gaineko Zergarena. Haren araudia aldatu egin zen 2018an, eta aldaketa hark erregimen trantsitorio bat ezarri zuen zuen, zerga-tipoen murrizketa progresiborako. Beherapen horren erdia 2018ko zergaldian sartu zen indarrean; beste erdia 2019ko ekitaldia, baina 2020ko zerga-bilketarekiko eragin fiskalekin.

Zerga-tipoen murrizketa horri gehitzen badiogu irabazietan ere beherakada aurreikusten dela, ondoriozta dezakegu aurten Elkarteen Gaineko Zergarekin bildutakoak baino 23,6 milioi euro gutxiago jasoko direla.

Datorren aurtetik aurrera ere, loteria eta apustu zehatz gehiago geratuko dira PFEZ deklaraziotik at.

Gainera, 2020an zerga-erreforma berria egiteko asmoa adierazi du EAJk, eta haren ondotik Foru Ogasunak eztabaida berotzen hasi dira. Rementeria tematuta dago Bizkaia inbertsio fondoek kudeatzaileen babesleku fiskal bihurtu dadin. Gainerako Foru Aldundiek ere Ondare eta Ondorengotza zergak murriztu edota ezabatzearen aldeko jarrera adierazi dute.

Finean, proposamen guztiak norabide berean doaz: zerga-pribilegio berriak eskaini dagoeneko egoera ekonomiko onuragarria dutenei, eta modernitate nahiz lehiakortasun itxura berria eman, aberatsentzako propio diseinatutako zerga-politika zaharrari.

**Aurrekontuen egonkortotasuna bermatzeko zerga-jaulkipena murrizteak eskuragarri izango diren baliabideak ugaritzea eragozten du.**

Gobernuak kalkulatu du datorren urtean izango dituen baliabideak 11.774 milioi eurokoak izango direla. 2019ko aurrekontuan baino 10,1 milioi euro gutxiago dira. Ehunekoetan %0,1 gutxiago.

Hori gertatuko da nahiz eta Aldundiek egindako ekarpena handiagoa izan, zor publikoaren erabilera murriztu egingo delako.

Zor publikoaren emisio kopurua murrizteko Gobernuak bi arrazoi eman ditu:

- Aurrekontu-egonkortasunerako araudia betetzea; eta honek 2020rako helburu gisa ezartzen du defizita zero izatea. Gainera, gastu publikoa aurreko urtean baino %2,9 gehiago igotzea galarazten du.
- Pilatutako zorraren kopurua jaitea, etorkizunean eman litezkeen atzeraldi berriei aurre egiteko tarte berreskuratzeko helburuz.

**Zerga-sistemak zerga-bilketarako dituen gabeziak eta fiskalitateari dagokionean burujabetza faltak ere baldintzatzen dute eskuragarri diren diru-sarreraren kopurua.**

Baina bada beste bide bat aurrekontuetan austeritatea blindatu nahi duen hesi hirukoitza (defizit mugak, gastu araua eta zorraren helburua) gainditzeko: zerga-erreforma egitea diru-bilketa handitu eta langile klaseak, enpresarioen irabazien eta kapitalaren errenten aldean egin behar izaten duen neurritz gaindiko ahalegin fiskala zuzentzeko. Gainera, aukera hori bateragarria litzateke zergei dagokienean tarte handiagorekin jokatzeko etor litekeen balizko krisitik eratorritako gora-beherei aurre egiterako orduan.

Hain zuzen ere, EAEn zerga-presioa Europar Batasuneko baxuenetakoa da. Zehazki, zerga diru-sarrera guztien baturak (\*kotizazio sozialak eta udal-zergak barne) BPGaren %31,7 ordezkatzen dute, euroguneko batezbestekoa %40,2an den bitartean.

EAEko zerga-presioa euroguneko batezbestekoarekin parekatzeak ekarriko luke zerga bidezko diru-sarrerak urteko 6.300 milioi euro igotzea (\*kotizazioak eta tokiko zergak barne), eta horietatik 2.800 milioi EAEko aurrekontuetan ekarpen gehigarri lirateke. Noski, neurri honetako proposamen bat pixkanaka, urratsez urrats egikaritu beharko litzateke.

Bistan da horretarako borondate politikorik ez dagoela, eta, gainera, bada beste zailtasun bat ere: Foru Ogasunak ahalmen legegile handia dute zerga zuzenen gainean, baina ez zeharkako zergekiko, ezta Gizarte Segurantzako erregimen ekonomikoarekiko ere.

Horren esan nahi du zerga-bilketen bi heren Estatuak araututako zerga-bideetatik eratorriak direla.

Edozein kasutan, diru-sarrera publikoak murriztu eta zerga-konpetentzia estrategiak sustatzeko helburuz egindako hainbat azterketetatik ondorioztatu da Estatuarentzat EAEko hiru herrialdeak (Madrilgo erkidegoarekin batera) direla “lehiakor eta erakargarrietarikoak” fiskalitateari dagokionean.

### **Gastu autonomikoak ekonomian duen pisuaren eta protagonismoaren galera ez dute zuzentzen 2020ko aurrekontuek.**

Arestian aipatu dugu datorren urteko aurrekontua, bere osotasunean, mantendu egiten dela %0,1eko murrizketarekin.

Beraz, aurrekontu-gastua izoztuta mantentzen da, testuinguru ekonomiko batean zeinetan motelaldia motelaldi, BPGa %3,7 igotzea aurreikusten den termino nominaletan (%2ko igoera errealaren prezioen bariazioa kontutan hartzen badugu).


Ekonomiarekin sinkronizatu gabe doazen aurrekontu hauen garapenak gastu publikoa murrizten du BPGarekiko, eta horrekin, Eusko Jaurlaritzak ekonomian esku-hartzeko duen gaitasunaren galeran sakontzen da ere.

Hala, 2020ko aurrekontuetan jasotako gastuak BPGaren %14,3 ordezkaturiko du, alegia, Iñigo Urkullu Lehendakari izendatua izan zenetik ordezkaturik mailarik apalena; urrun geratzen da 2009an erdietsitako erreferentzia, %15,8koa.

Aurreikusten da 2020an zorraren interesak eta amortizazioa ordaintzera bideratutako gastua 401 milioi jaistea.

Hori horrela izanik ere, politika publikoetara zuzentzeko ekitaldian erabiltzeko geratuko den aurrekontua (finantza operazioetako gastua kendu ondoren) %2,8 igoko da. Ekonomiaren hazkundera (%3,7) baino ia puntu portzental bat gutxiago.

### 2019 eta 2020rako proiektuak, aurreko urteetako likidazioekin alderatuta



Iturria: LABek osatuta, Eusko Jaurlaritza eta Eustaten datuetan oinarrituta.

### Gastu sozialean egiten den ahalegin ekonomikoak gainbeheran jarraitzen du.

Aurrekontua sailkapen funtzionalak partidak gastu-programen arabera sailkatzen ditu, eta honek ahalbidetzen du zein helburutara zuzentzen diren jakitea.

Sailkapen honi jarraiki gastu sozialak ondoko politiketara zuzendutako partidak barnebiltzen ditu: Segurtasun eta Babes Soziala, Sustapen Soziala, Osasungintza, Hezkuntza, Etxebizitza eta Hirigintza, Ongizate Komunitarioa, Kultura, Bestelako Zerbitzu Komunitarioak eta Euskararen Sustapena.


2020rako Gobernuak aurreikusten du gastu sozialeko politika horietara bideratzea 8.386,2 milioi euro, finantza-karga deskontatuta (interesak eta zorraren amortizazioa) erabilgarri den aurrekontuaren %77,3 litzatekeena. Honek atzerakada dakar 2019ko aurrekontu proiektuarekin alderatuz, orduko hartan %77,9koa izan baitzen aurrekontu erabilgarriaren portzentajea.

Honaino azken bi aurrekontu-proiektuen arteko alderaketa. Baina aurrekontu-likidazioen datuekin ikusten dugu 2015ean benetan exekutatu zen gastu sozialak

erabilgarri zen (zor publikorik gabe) aurrekontuaren %79,6 ordezkatu zuela. Geroztik beheranzko joera argia izan du.

Halaber, EAEn (BPGari dagokionean) sortutako aberastasunarekiko proportzioan gastu sozialera bideratutako ahalegin ekonomikoa kalkulatzeko badugu, etengabeko atzerakada ikusten da, azken atzeraldi ekonomikoa eman zenetik hona. 2011n enplegu politika aktiboak eta 2012an bestelako kompetentzia apalago batzuk (479 milioi eurotan baloratuak) transferituta ere ez da lortu Eusko Jaurlaritzak gastu sozialean egindako ahaleginaren gainbehera geratzerik.

### *Eusko Jaurlaritzaren gastu soziala BPG eta honen bilakaera oinarri*



Iturria: LABek osatuta, Eusko Jaurlaritza eta Eustaten datuetan oinarrituta.

### **Gobernuaren politikek ez dute hazkunde inklusiboa bermatzen, ezta ordainsari-neurri eraginkorrek ere.**

Aurrekontuen Azalpen Memorian, Gobernuak onartzen du hazkundeak berak ez duela zertan ongizatea ekartzen. Era berean, errenta eta birbanaketa sortzeko prestazio ekonomikoa eta laguntzen bidezko uztarketaren beharraz hitz egiten du. “Ongizate euskal eredu” izena jartzen dion horren berezitasunak goraiatu eta guzti egiten ditu.

Honen harira, lehenik eta behin nabarmendu behar da, Eustaten datuen arabera, EAEn babes sozialeko gastuaren %60tik gora Estatuaren Gizarte Segurantzaren sistemak eta



Administrazioak hartzen duela bere gain, eta babes sozialeko gastu osoaren ia heren bat (%32,6) euskal Administrazioen eskumena da (Gobernua, aldundiak eta tokiko administrazioak). Gainontzeko %7 erakunde pribatuek betetzen dute.

Babes sozial arloan maila instituzional desberdinetan ematen den eskuduntzen banaketa ikusita, “euskal ereduaz” hitz egitea gehiegizkoa dela iruditzen zaigu.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak berriki argitaratutako Pobrezia eta Berdintasunik Ezari buruzko inkestaren arabera (EPDS), ekonomia berdintasunik eza sakontzen joan da, 2014ean abiatutako ekonomia susperraldiak susperraldi.

Hain zuzen ere, 2008an, diru sarrera handienak dituzten herritarren %10ek diru sarrera gutxien dituzten %10ak baino 5,2 aldiz gehiagoko errenta jasotzen zuten, batez beste; gaur, berriz, 6,1 aldiz gehiagokoa da aldea.

Inkestak errenta garbi eskuragarriari buruz ari da, hau da, zergak ordaindu eta prestazio sozialak jaso ostekoa. Horrenbestez, agerian geratzen da politika publikoen eragin birbanatzaile ahula, ez baita nahikoa sistema produktiboak eta merkatuak sortzen duten berdintasunik eza zuzentzeko.

### **Pobreziak gora egin du, eta Gobernuak gizarte laguntzarako prestazioak murriztu ditu.**

Gizarte Segurantzaren eta langabezirako babesik gabe, Estatuaren erabateko eskuduntzak diren heinean, gizarte laguntza da Gobernuak duen arlo gutxieneko bat babes ekintzak sustatzeko.

Logikoki, gizarte laguntzak izaera subsidiarioa du, Gizarte Segurantzako prestazioen bitartez bete ezin daitezkeen egoerak babesteko helburua baitu. Babes sozialerako arlo honetan, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusio Sozialerako Euskal Sistema garatu dute EAEn, pobrezia eta bazterketa sozialaren aurreko azken babes gisa. Sistemak hiru motatako laguntzak aurreikusten ditu: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI), Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (PCV) eta Larrialdi Sozialerako Laguntzak (AES).

Eusko Jaurlaritzak “Euskadiko ongizate estatuaren” ikur gisa aurkeztu ohi du Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta. Hala ere, prestazioekin laguntzeko sistema honek hutsune garrantzitsuak ditu.

Horrela dago frogatuta Enplegu eta Gizarte Politiketarako Departamentuak berak aurkeztutako eragin txostenean bertan<sup>1</sup>:

- EAEn, 197.000 lagunetik gora daude benetako pobrezian edo diru sarrerak bermatzeko sisteman sartzeko eskubidearekin. Sistemak ez du kolektibo honen %30,7 artatzen eta, ondorioz, horiek guztiek ez dituzte prestazioak jasotzen. 60.600 pertsona bazterrean eta utzita geratzen dira, ondorioz.
- 2012an, estaldura faltak benetako pobrezia arriskuan dauden herritarren %27,4ari eragin zion, hau da, 50.313 pertsonari. Orduz geroztik, artatuak izan ez diren pertsonen kopuruak gora egin du etengabe.
- Diru sarrerak bermatzeko sisteman sartzeari lortzen duten pertsonen kopuru erdia baino gehiago (%51,5) ez da pobreziatik irtetzen; honek argi uzten du sistema honen gaitasun mugatua pobrezia gainditzeko. Portzentaia honek ere gora egin du 2012ko egoerarekin alderatuta, *porroten* ehunekoa %48,3koa izan baitzen orduan.

Hau guztia ez da kasualitate hutsa. 2012rako aurrekontuen legeak %7ko murrizketa onartu zuen RGIan. Murrizketa hau ez zuten inoiz zuzendu, ezta Gobernu aldaketarekin ere. Gainera, 2017an, RGIaren kopurua deslotuta geratu zen gutxieneko soldatetik, ez baitzuten aplikatu SMI birbaloratzeko egindako %8ko igoera.

Honen ondorioz, RGIaren kopurua 667,05 eurotan geratu da hilabeteko, pobrezia itopuntuaren askoz txikiagoa den kopurua, 895,63 eurotan dagoena, Enplegu Departamentuaren kalkuluen arabera.

Bestalde, Arartekoaren Bulegoak aipatutako prestazio hau jasotzeko aplikatutako irizpide murriztaile eta diskrezionalak salatu ditu.

Hala ere, EAJ eta PSEren gobernu lege eta aurrekontu murrizketa gehiago prestatzen ari da 2020. urterako. Momentuz, murrizketa hauek RGI eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriko zuzendutako partiden %4,4ko murrizketan oinarritzen dira, 20,5 milioi euro gutxiago 2019ko aurrekontu proiektuan jasotakoarekin alderatuta.

Bitartean, pobrezia adierazleek egoeraren okertze bat iragartzen dute, ez bakarrik 2008arekin alderatuta, legegintzaldi honekin alderatuta ere.

---

1 Gizarte Beharrezan Inkesta (EPDS-2018).

### ***Pobrezia eta bazterketa adierazleak EAEn.***

(Pertsona kopurua)	<b>2008</b>	<b>2016</b>	<b>2018</b>	<b>2016-2018</b>	<b>2008-2018</b>
Pobrezia eta bazterketa (AROPE)	385.087	440.823	446.695	+%1,3	+%16,0
Pobrezia arrisku erlatiboa	318.161	350.668	382.316	+%9,0	+%20,2
Pobrezia arrisku larria	66.540	104.177	109.735	+%5,3	+%64,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Departamentua.

Atzerakada honek eta iragarritako murrizketa neurriek oso leku txarrean uzten dute Urkulluren Gobernuak. Izan ere, lau urteko epean pobrezia %20 gutxitzeko konpromisoa hartu zuen, Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Agenda oinarri.

### **Hezkuntzarako ahalegin ekonomikoa gero eta ahulagoa da.**

Hezkuntza politiketarako zuzendutako aurrekontua 2020rako 2.808,9 milio eurokoa da, 2019rako hasieran aurreikusitako kopurua baino %2,4 gehiago. Hala ere, ehuneko hau %3,7ko igoeraren azpitik dago. Hain justu, igoera hori eskuragarri dagoen aurrekontuan jasota dago politika publikoentzako (zorrak eragiten duen finantza karga behin deskontatuta).

Gobernuaren iragarpenen arabera, Hezkuntzako autonomia gastua BPGaren %3,41 izango litzateke 2020an. Hortaz, gutxitzen jarraituko du Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza politikan egiten duen ahalegina, BPGaren portzentaia kontutan hartuta. Datorren urtean, adierazle hau bere maila baxuenera iritsiko da 2006. urtetik.


Europako Batasunean<sup>2</sup> %4,6koa da BPGaren portzentaiaren batez bestekoa Hezkuntzara zuzendutako gastu publikoari dagokionez. Eusko Jaurlaritzaren gastua arlo honetan gastu publiko osoaren %96 ingurukoa izan arren, bistan da Lakuako Gobernuak oso urrun dagoela Europako kopuruetatik. Egia esan, Europako Batasunean ahalegin ekonomiko txikiagoa egiten duten bi herrialde daude bakarrik: Errumania eta Irlanda.

Honek guztiak eragin kaltegarria dakar irakaskuntza publikoaren lanean, desberdintasun sozioekonomikoen efektua arintzeko garaian jakintza jasotzeko orduan eta berdintasun aukerak eta aurrerapauso eraginkorrak bermatzeko garaian gizarte ekitate handiago bat lortzeko.

---

2 Funtzioen araberako gastu publikoa Europako Batasunean 2017an, Eurostat.

### *Gastu autonomikoa Hezkuntza arloan, BPG oinarri*



OHARRA: Aurrekontuaren gauzatze datuak 2018 arte eta aurrekontu proiektuak 2019 eta 2020rako.

Iturria: LABek osatuta, Eusko Jaurlaritzaren eta Eustaten datuak oinarri.

### **EAEko gastu publikoa Osasungintzan Europako azken muturrean dago, BPG oinarri**


Osasun politiketarako zuzendutako partidek 3.941,5 milioi euroko kreditua dute jasota, hau da, 2019an aukeztutako aurrekontu proiektua baino %3,7 gehiago.

Igoera honek Osasungintzarako 2019an aurreikusitako gastu publikoaren pisua matentzeko balioko du, beste politika publikoekiko. Hala ere, ez da nahikoa izango Osasungintzako gastuan izaten ari den etengabeko atzerakada kontutan hartuta, BPG oinarri.

Adierazle honek erakusten du sortutako aberastasunetik (BPG) zenbat erabiltzen den Osasun Publikoko programetan inbertitzeko. Azken urteetako aurrekontuen likidazioen arabera, arlo honetan kezkatzeko moduko atzerakada ari da gertatzen.

2020. urtean, Lakuak Osasungintzari eskainiko dion gastua BPGaren %4,78 izango da, mailarik baxuena 2008. urteaz geroztik. Europako Batasunean, berriz, Osasungintzarako gastu publikoa BPGaren %7 da.

### ***Gastu autonomikoa Osasungintzan, BPG oinarri***



OHARRA: Aurrekontuaren gauzatze datuak 2018 arte eta aurrekontu proiektuak 2019 eta 2020rako.

Iturria: LABek osatuta, Eusko Jaurlaritzaren eta Eustaten datuak oinarri.

Osasungintzako gastu publiko osoa autonomia Administrazioaren ardura da; gastu osoaren %92 finantzatzen du. Horrenbestez, gastu osoa kontutan hartuta ere, bistan da EAE atzeko postuetan dagoela Europako Batasuneko Estaturen gehiengoaren aldean, Osasungintzan egiten den ahalegin ekonomikoari dagokionez, gure inguruko Estatuetatik oso urrun.

### ***Gastu publikoa Osasungintzan, BPG oinarri (2017) - Eurostat***

UE-28	Espainia	Frantzia	Italia	Alemania	Erresu. Batua
%7,0	%6,0	%8,0	%6,8	%7,1	%7,4

Zentzu honetan, 2020rako aurrekontuak ez du inolako konpromisorik jasotzen egungo egoera irauli ahal izateko.